



Arartekoaren 2017R-2368-16 Ebazpena, 2017ko urriaren 24koa. Horren bidez, Dimako Udalari irizpideak gomendatzen zaizkio herritarrekin komunikatzean hizkuntza ofizialak erabiltzearen arloan.

Aurrekariak

1. Dimako auzotar batek Arartekoarengana jo zuen. Izan ere, ez zegoen ados udalak berari nahiz herritar guztiei orokorrean zuzendutako zenbait jakinarazpen euskara hutsean editatzearekin.

Kexagilea ez zen jakinarazpen horietan euskara erabiltzeagatik kexatzen, baizik eta, jakinarazpen horien gaztelaniazko bertsioa argitaratzen ez denez, hizkuntza ofizial horretan bakarrik hitz egiten dutenek ezin dutelako jakin zer dioten idatziek, jakinarazpen horiek argitaratzen diren bakoitzean udal bulegoetan itzultzeko eskatu ezean.

Herritarrak zioskunez, zenbaitetan kexatu zitzaion udalari horregatik, eta hark bidaltzen zizkion jakinarazpen pertsonal batzuk elebitan idatzita egotea lortu zuen. Zioenez, ordea, ez zen horrela beti, eta adibide gisa, zirkulazioaren gaineko zerga aipatzen zuen, euskara hutsean bidali baitzioten, haren esanetan.

Kexagileak zioen, nolana ere, udalak jarraitzen zuela jendeari orokorrean zuzendutako jakinarazpenak euskara hutsean argitaratzen, eta udalari horretaz kexatzen zitzaion bakoitzean eskaintzen zioten irtenbide bakarra bulegoetara itzul ziezazkioten joatea zela. Zioenez, halaber, itzultzeko aukera hori ere ukatu zioten euskaraz argitaratutako udal aldizkari bati zegokionez.

2. Kexagileak eskatuta, Eusko Jaurlaritzako Elebide zerbitzuak gorabehera bat ireki zuen zio horregatik Dima udalaren aurka. Han, udalaren jarduera aldatu beharra adierazi zuen, azaroaren 24ko 10/1982 Legea, Euskararen erabilera normalizatzekoa, kontuan hartuz. Udalak hala egin ez zuenez gero, gorabehera itxi behar izan zen, kalifikatuz, arlo horretan, udalaren jarduerak herritarren hizkuntza eskubideak urratzen zituela.

Kalifikazio hori ikusita, udalak berriz idatzi zion Elebideri esateko, lege horren 8. artikuluan xedatutakoari jarraiki, pertsona horren hizkuntza eskubideak bermatuko zituela. Adierazpen hori egin eta hil batzuk geroago, ordea, interesdunak Arartekoari jakinarazi zion udal bandoak eta deialdiak euskara hutsean argitaratzen jarraitzen zutela. Halaber, kexagileak jakinarazten zuen udalak ez zizkiola zio horregatik aurkeztu zizkion zenbait kexa-idazkiri erantzun, eta lan-poltsa bat euskaraz iragartzeari buruzko beste bati, aldiz, erantzun ziotela esanez iragarki hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta udalaren web orrian zegoela elebitan argitaratuta.





3. Arartekoak udalari idatzi zion egitateak egiaztatzeko eta elkarrekin lan egiteko, kexa hori konpontzen ez ezik, antzeko zioengatik beste edozein kexa agertzea aurreikusi ahal izateko neurriak ezartzen ere bai. Horretarako, eskatu genion erakunde honi emateko horri buruzko udal jarduera zuzentzen duten ildoen berri, baita proposatzen genizkion irizpide batzuk aplikatuz irtenbideak hartzeko prest zeuden jakinarazteko. Errepikapenak saihesteko, irizpide horiek hurrengo puntuan azalduko dira.
4. Udalak ez zuen erantzun Arartekoak horretarako adierazi zion epean, eta, halaber, ez zion kasu egin hilabete geroago hala egiteko bidali zitzaion errekerimenduari. Lankidetzaren eskaerari kasu egin gabe hiru hilabete igaro ondoren, erakunde honek ebazpen hau ematea erabaki du, gogoeta hauetan oinarrituta:

Gogoetak

1. Indarreko esparru juridikoa funtsezko erreferentzia da, zalantzarik gabe, espediente honetan sortutako arazoei heltzeko orduan. Bestalde, ezin da ahaztu, hizkuntza-politiken arloan, botere publikoek ez daukatela bakarrik euskararen eta gaztelaniaren koofizialtasunak dakartzan eskubideak eraginkorrak izateko neurriak hartzeko betebeharra; neurri horiek herritar guztiengan norainoko eragina izan dezaketen kontuan hartuz, batez ere ingurune soziolinguistiko batzuetan, garrantzitsua da beti era barne-hartzailean lan egitea, haren onarpena, arauetan sartzean oinarritu ez ezik, oinarrizko gizarte adostasun batean ere berma dadin.

Hori dela-eta, Arartekoaren esku-hartzeak osoko ikuspegia hartu nahi izan du, udalarekin batera, kasu honetan nahiz gerta daitekeen beste edozeinetan, eskakizun biak ahalik eta hoberen asa litzaketen jardunbideak eta irizpideak identifikatu ahal izateko. Dimako Udalak, aldiz, ez die erantzun erakunde honek ildo horretatik egin dizkion lankidetzaren eskaerei, eta ez du arrazoirik eman ezin egiteko. Horrela, kexa horri hausnarketa partekatutik heltzea oztopatu ez ezik, udalaren jarduerak urratu egiten du euskal administrazio publikoek daukaten legezko betebeharra, Arartekoari, lehentasunez eta premiaz, bere eginkizunak bete ahal izateko eskatzen dizkien datu, agiri, txosten eta argibide oro ematekoa (otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 23. eta 24. art.).

2. Erakunde honen ustez, gure autonomia erkidegoan bi hizkuntza ofizialak erabiltzeari buruzko aginduak irakurrita, hasiera batean, pentsa daiteke elebidunak ez diren botere publikoen jarduerak ez letozkeela bat haietan jasotakoarekin. Ildo horretatik, funtsezko erreferentzia da azaroaren 24ko 10/1982 Legeak, Euskararen erabilera normalizatzekoak, 8. artikuluan xedatutakoa. Udalak berak



aipatzen zuen artikulua hori Elebideri idatzi zionean, ebazpen honen bigarren aurrekariak jasotzen duenez, eta kexagilearen hizkuntza eskubideak bermatuko lituzke. Hau dio bigarren paragrafoak: *“Euskal Herriko Autonomia-Elkarteango herri-agintariek eskuhartu dezateneko egintza guztiak, eta bai arduralaritza-mezu eta adierazpenak ere, bi hizkuntzetan egon beharko dute, doakienek berariz Autonomia-Elkarteko hizkuntza ofizialetatik bat aukeratu dezatenean salbu.”*

Ezin dira, noski, xedapen horiek alde batera utzi, baina gogoan hartu behar da udalak lan egin eta herritarrengana, nahiz gainerako administrazioetara zuzentzeko nahi duen hizkuntzari buruz hartzen dituen erabakiak, ez direla hautu apetatsu bat. Gune euskaldunetan (eta horixe da, hain zuzen ere, Dimaren kasua) euskara komunikazio tresna biziagoa da, eta baliteke etorkizunean haren erabilerak gora egitea eta euskaraz gain gaztelania erabili behar ez izatea; hala ere, horrek ez du ekarri behar gure hizkuntza ofizialetako bat zein bestea erabili nahi duten pertsonak diskriminatzea.

Hala ulertu behar da Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna. Haren helburu eta printzipioen artean hau xedatzen du: *“la adopción de medidas especiales en favor de las lenguas regionales o minoritarias, destinada a promover una igualdad entre los hablantes de dichas lenguas y el resto de la población y orientadas a tener en cuenta sus situaciones peculiares, no se considerará un acto de discriminación con los habitantes de las lenguas más extendidas”*.

Gauzak horrela, ikuspegi formal hutsean geratu gabe –horrek pentsaraz diezaguke bi hizkuntza ofizialak jarduera guztietan mimetikoki islatuta konpon daitezkeela desadostasunak–, uste dugu harago joan behar dugula: gaia ikuspegi materialetik aztertu behar dugu –komunikazio tresna den heinean.

3. Gogoeta horretan oinarrituz, ondoriozta dezakegu aipatutako araua, berez, ez dela nahikoa mahaigaineratutako gaiari irtenbidea emateko, bi arrazoi direla eta: alde batetik, arau horrek udalaren jardun orokorra du hizpide, ez bakarrik egintzak, jakinarazpenak eta komunikazioak; bestalde, gehiegizkoa dirudi jardun horren adierazpen guztiak manamenduan aipatutako *“egintza oro”* esapiderearen baitan biltzea. Izan ere, hala balitz, ez lituzke zertan aipatu *administrazioaren jakinarazpen eta komunikazioak*. Bestalde, ezin da alde batera utzi, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusia, administrazioarekiko auzien salaren 2016ko maiatzaren 25eko epaiaz geroztik, euskara hutsean egiten diren udalbatzen akten baliozkotasuna adierazten ari dela, baita gainerako botere publikoei haiek hizkuntza horretan bakarrik komunikatzearena ere.

Horregatik guztiagatik, ezin da defendatu EAeko administrazioak egintza jakin batzuetan euskara hutsa erabiltzeak dakarrela, berez, haiekin gaztelaniaz



erlazionatzea hautatzen duten herritarrak diskriminatzerik. Bereizkeria izango litzateke baldin eta, hizkuntza-eskubideak formalki bermatzeaz haratago, aukera hori benetan librea izango ez balitz, hau da, aukera hori gauzatzea baldintzatuta edo galarazita egongo balitz, praktikan, epeak arrazoiz kanpo luzatzea edo arrazoizkoak ez diren eragozpenak eragiten dituela-eta.

Horixe da apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, darabilen logika ere.

- Alde batetik, toki-erakundeen eta udalerriek euskararen erabilera sustatzeko eta euren eskumenen eremuari dagozkion zerbitzu eta jardueretan haren normalizazioa planifikatzeko dauzkaten eskumenak jasotzen ditu. Horretarako bere 7. artikuluan udalei izendatzen zaie, eskumen propio gisa, *hartatik eratortzen diren ahalmen eta funtzioekin, beren lurralde-eremuan euskararen ezagutza sustatzeko eta erabilera dinamizatze eskumena, horretarako zerbitzuak eta jarduerak zuzenean antolatuz, edo beste pertsona edo erakunde batzuek euskara sustatu eta dinamizatzeko aldera burutzen dituzten jardueren finantzaketan lagunduz.* Halaber, 6. artikulua ahalmena aitortzen die euskal toki-erakundeei bi hizkuntza ofizialetatik bat erabiltzeko, bai barne-harremanetan, bai beste edozein administrazio publikorekin nahiz partikularrekin dauzkan harremanetan.
 - Jarraian, ordea, gure toki-erakundeek dauzkaten zenbait betebeharrak ezartzen ditu arauen 6. artikulua berak, herritarren hizkuntza eskubideen korrelatua baino ez direnak. Funtsean, Konstituzio Auzitegiak 10/1982 Legeaz emandako doktrina aplikatzea da. Doktrina horren arabera, *“botere publikoek beren ekimenez edo interesdunek hala eskatuta erabil dezakete ofizialak diren bi hizkuntzetatik bakarra, hala araututa baldin badago eta erabilitako hizkuntza ez dakiela alega dezakeen interesdunen baten eskubideak kaltetzen ez badira”* (9. oinarria).
4. Arartekoak gogoeta horiek guztiak hartu ditu kontuan, azaldutako arau esparruaren barruan beti, herritarrek hizkuntzaren sustapenaren eremuan euskal udalei dagozkien eginkizunei dagozkien eskubideak bateratzeko. Hori dela-eta, erakunde honek arlo horretan irizpide batzuk hartzea aholkatu du Eusko Legebiltzarrean. Hona hemen aztergai dugun kasurako garrantzitsuenak:
- Ulergarria da udal batzuek hizkuntzaren normalizaziorako planen esparruan hartu duten erabaki hau: **bestarik adierazi ezean, euskara erabiltzea herritarrekin komunikatzeko orduan.** Ez da apetazko hautua; izan ere, agerikoa da euskal hiztun askok gaztelaniara jotzeko joera dutela administrazioarekiko harremanetan, gure hizkuntzaren



gutxitzearekin zerikusia duten arrazoi historikoak medio, eta botere publikoek joera hori murriztea nahi izatea.

- Euskara ofiziala den lurraldeetako administrazio-instantzia guztietarako **euskaraz idatzitako dokumentuek erabateko balio legala** dutela babestu, Estatuko Administrazio Periferikoa barne hartuta, Euskadin erakunde ofiziala den heinean, euskara ulertzeko gai izan behar baitu. Hala ere, horiek jendaurrean jakinarazterakoan, ezin izango zaie diskriminaziorik eragin gaztelania erabili nahi duten pertsonei. Izan ere, **administrazio publikoek ez dute hizkuntza-eskubiderik, herritarren hizkuntza-eskubideak errespetatzeko legezko betebeharra baizik**. Ildo horretan, honako hau adierazi beharra dago:
 - Ingurune euskaldun batean dagoen udalerrri bateko udal-aldizkaria edo horren “paisaia linguistikoa” osatzen duen seinaleztapena euskaraz bakarrik egotea ez zaio Arartekoari iruditzen, azaldu ditugun terminoetan, legearen aurkako jarduera denik.
 - Banako jakinarazpenei dagokienez, erabilitako hizkuntza haien hartzailerik den herritarrek hautatutako ofiziala izan behar da, administrazio-prozedura arautzen duen araudiari lotutako izapidetze baten barruko jakinarazpenak izan zein ez. Alegia, hizkuntza lehenetsia euskara izan badaiteke ere, herritarrek berriaz adierazi badu bere udalarekin harremana gaztelaniaz izan nahi duela, hizkuntza hori erabili behar du udal horrek banaka helarazten dizkion jakinarazpen guztietarako. Jakinarazpen horiek ez dute zertan beti prozedura arautuei buruzkoak izan (gogoan har ditzagun herritarrek euren helbidean hartzen dituzten udal deialdi eta jakinarazpen guztiak).
 - Herritar guztiei zuzendutako udal-bandoen nahiz edozein motatako deialdien argitalpenei dagokienez, bi hizkuntza ofizialen erabilera ezartzen da. Izan ere, herritar guztientzako informazio garrantzitsua helarazten da horien bitartez, eta, administrazioak bi hizkuntzak jakiteko betebeharra badu ere, herritarrek ez dute horrelako betebeharririk.
5. 2016ko irailaren 23an Elebideri bidali zion jakinarazpenean, Dimako Udalak konpromisoa hartu zuen pixkanaka behar diren neurri guztiak hartzeko, dauzkan baliabideak kontuan hartuz, erreklamazio hau eragin duena bezalako kasuak berriz ez gertatzeko.

Une hartan, espedientearen eragin duenari eskaintzen zitzaion neurri bakarra udal bulegoetara joatea zen, han ulertzen ez zituen euskarazko testuak gaztelaniara itzultzeko. Bigarren aurrekariak jasotzen duenez, horren ondorioz Elebidek zio horregatik irekitako gorabehera itxi eta adierazi zuen jarduera horrek herritar horren hizkuntza eskubideak urratzen zituela. Bat etorri behar dugu kalifikazio horrekin, azaldutako irizpideengatik.





Harrezkero urtebete igarota, kexagileak jakinarazi du ez dela neurri berririk jarri horri buruz. Ezinezkoa izan da udalarekin informazio hori egiaztatzea, hark ez baitu bete Arartekoak horretarako egin zizkion lankidetzak eskaerei erantzuteko betebeharra. Nolanahi ere, ezin da ahaztu apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 6.3 artikulua, hirugarren puntuan aipatu dugun euskal toki-erakundeen betebeharra ezartzean, hau dioela: Zein ere den erabiltzen duten hizkuntza ofiziala, *“behar diren mekanismoak sortu beharko dituzte, herritarrek karga edo betebeharririk eragingo dieten inolako formaltasun eta baldintzarik gabe baliatu ahal izan dezaten komunikazioak beste hizkuntzan jasotzeko daukaten eskubidea”*.

Irizpide hori bat dator erakunde honek defendatzen zuenarekin, ikusi dugunez, botere publikoekiko harremanean euskara edo gaztelania hautatzeko orduan herritarren askatasuna bermatzeko. Horren arabera, herritar horrek ez luke zertan jo udal bulegoetara bere udalak euskaraz egindako bando, ohartarazpen edo deialdi bat gaztelaniara itzultzeko eskatzeko. Hori egitera behartzea, erakunde honen iritziz, bere hizkuntza eskubideak erabiltzea jasan behar ez duen karga baten baldintzapean jartzea litzateke.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

Hizkuntza-irizpide hauek gomendatzen dizkio Arartekoak Dimako Udalari bere herritarrekin komunikatzeko:

- Banako jakinarazpenei dagokienez, eta erabilitako lehenetsitako hizkuntza euskara bada ere, hizkuntza, kasuan kasu, haien hartzaileak berariaz hautatutako ofiziala izan behar da, administrazio-prozedura arautzen duen araudiari lotutako izapidetze baten barruko jakinarazpenak izan zein ez.
- Udal laguntzaren bat daukaten aldian behingo argitalpenei dagokienez, euskara hutsean argitaratuta egoteak ez ditu berez urratzen herritarren eskubideak; izan ere, toki-administrazioak arlo horretan daukan ahalmenen zuzenbidearen arabera erabilera bat da.
- Herritar guztiek ezagutzeko udal-bandoak edo deialdiak Euskal Autonomia Erkidegoan ofizial diren bi hizkuntzetan argitaratu beharko dira. Izan ere, herritar guztientzako informazio garrantzitsua helarazten da horien bitartez, eta, administrazioak bi hizkuntzak jakiteko betebeharra badu ere, herritarrek ez dute horrelako betebeharririk.

